

bai
aldizkaria

Bai Euskarari Elkartearen aldizkaria | 40 zk | 2025eko ekaina



LAN ETA BIZI
EUSKARAZ

25
bai
euskarari
ziurtagiria

Bai Euskarari
Ziurtagiriak
25 urte

#BAIEUSKARARI SARIAK2025



Beatriz Tomas
[Bai Euskarari Elkarteko administraria]

25 URTE ELKARREKIN HAZTEN

Aurten urte borobila ospatzen dugu. 25 urte bete dira gure ibilbidea hasi genuenetik. Mende-laurden honetan elkarte bat baino gehiago eraiki dugu: komunitate bat osatu dugu, balioak partekatu ditugu eta ingurunean arrasto positiboa uzteko konpromisoz eta pasioz lan egin dugu.

Aurtengo urtea bizi izan dugun guztiaren isla izatea nahi dugu, baina baita etorkizunera begiratzeko aukera ere. Eta hori ospatzeko urteko une garrantzitsuenetako bat dira Bai Euskarari Sariak. Aurten, sari banaketari kutsu berezi bat eman diogu, betiko hiru entitateak saritzeaz gain nobarnakoen saria berreskuratu dugu.

Hiru entitatek jaso dute saria: Grupo Gisma, Egarrri Edariak eta AZTI. Bakoitzak bere esparrutik erakutsi du euskara lan tresna eraginkorra dela, eta, aldi berean, enpresaren balio eta nortasunaren parte izan daitekeela.

Grupo Gisma kudeaketa sistemetan eta estrategia jasangarrian espezializatutako aholkularitza da. Efizienteagoak, jasangarriagoak eta errentagarriagoak izaten laguntzen diete enpresei, baita kostuak murrizten eta merkatu berrietan sartzen ere.

Egarrri Edariak enpresak argi erakutsi du euskarak bere tokia izan dezakeela merkataritza sektorean ere. Egarrri Edariak Euskal Herrian edariak sortu, ekoiztu eta banatzen ditu, aitzineko jakinduria zainduz.

AZTI ikerketa-zentro teknologikoa da, eta itsas eta elikadura arloetan lan egiten du, berrikuntza eta jasangarritasuna ardatz hartuta. Nahiz eta sektore tekniko eta internazionalizatuan aritu, euskararen aldeko apustu irmoa egin dute.

Norbanakoaren saria Pello Reparaz Escalak jaso du. Musikari bat baino askoz gehiago saritu dugu. Ibilbide oparo eta etorkizun handiko pertsona baten lana aitortu dugu elkartearen mugarri den ekitaldian. Sari berezia da entregatuko zaiona, eta elkartearen erronkekin eta eraberritzearekin lotu dugu bere izendapena.

Eskerrik asko gure historiaren parte izateagatik. Ospatzen, lan egiten eta euskaraz amesten jarrai dezagun... taldean beti.

Ziurtagiriaren 25 urteko
ibilbidea, dokumental batean 3

Bai Euskarari Sariak 2025

Irantzu Zubiaur Olazar 4
AZTI

Malder Sedano 7
GRUPO GISMA

Elorri Behety 10
EGARRI EDARIAK

Komunitatearen txokoa 13

Elkarrengandik Ikasiz
solasaldiak 14

Argitaratzailea: Bai Euskarari Elkarte
www.baieuskarari.eus

Martin Ugalde Kultur Parkea - 20140
Andoain
t. +34 943592148

38 Cordeliers karrika - 64100, Baiona
t. +33 603494365

Rogelia de Alvaro Elkartearen Etxea A.1.1.
Panama, z/g - 01012, Gasteiz

Kudeaketa eta erredakzio-taldea:
Bai Euskarari Elkarte eta Arteman
Komunikazioa.

Diseinua eta maketazioa: dalvez
Argazkiak: Bai Euskarari Elkarte,
Arteman Komunikazioa, AZTI, GISMA,
eta Egarrri Edariak.

Inprimatzailea: Leitzaran Grafikak

Banaketa: Bai Euskarari Elkarte

Lege gordailua: SS-497-2010



Bai Euskarari Ziurtagiriaren 25 urteko ibilbidea, dokumental batean

Ekainaren 13an mende laurdena bete da Euskalgintzaren Kontseiluaren ekimenez lehenengo Bai Euskarari Ziurtagiriak banatu zirenetik Donostian. Urteurrena ospatzeko eta ibilbidea jasotzeko, elkarteak dokumental bat sortu du.

Duela 25 urte, 2000ko ekainaren 13an, 231 gizarte eragilek mugari garrantzitsu bat ezarri zuten euskararen normalizazioan. Egun hartan, Kontseiluak bultzatuta, Donostian ospatutako ekitaldi batean, arlo sozioekonomikoan euskararen erabilera sustatzeko konpromisoa hartu zuten, Bai Euskarari Ziurtagiriaren lehen aleak jasoz. Ordutik, ekimenak ibilbide oparoa izan du, euskararentzat espazio berriak irabaziz eta milaka entitatek osatutako komunitate sendo bat sortuz.

Urte hauetan guztietan, Bai Euskarari Ziurtagiriak eragin nabarmena izan du gizartean, sektore guztietan euskararen erabilera bultzatuz. Gaur egun, ehunka dira Bai Euskarari komunitatea osatzen duten enpresa, saltoki eta era guztietako entitateak. Euren borondatez eta konpromisoz, euskaraz lan egiteko, kontsumitzeko eta, azken finean, bizitzeko aukerak zabaltzeko, bidea nabarmen erraztuz.

Hasierako ziurtagiriaren kudeaketatik haratago, ekimenak eboluzionatu egin du. 2007an Bai Euskarari Elkarteak sortu zen, eta ordutik, ziurtagiria kudeatzeaz gain, hainbat proiektu estrategiko jarri ditu abian euskararen erabilera arlo sozioekonomikoan sustatzeko. Horien artean daude **Enpresarean**, enpresa eta profesionalen sarea; **Lansa-**

rean, euskarazko lan-eskaintzak biltzen dituen ataria; **La-zarraga Sariak**, arlo horretako jardunbide egokiak saritzen dituen; edota **Euskaragileak**, euskararen normalizazioan aurreratuak dauden entitateen batzordea. Gainera, elkarteak akuilu lana egin du, beste eragile batzuk ere euskararen aldeko ekimenak abian jartzera animatuz.

Ibilbidea, dokumental batean jasota

25. urteurren esanguratsu hau ospatzeko, Bai Euskarari Elkarteak dokumental bat ekoitzi du. Ikus-entzunezko lan honek ziurtagiriaren sorrera, bilakaera, gaur egungo egoera eta etorkizuneko erronkak jorratzen ditu, ibilbide oparo honen testigantza jasoz. Bertan, proiektuaren protagonistetako askoren ahotsak bildu dira, komunitate harro honen ekarpena bistaratuz: Rober Gutiérrez, Pilar Kaltzada, Iraitz Perez de Golarazena eta Estitxu Garai izan dira elkarriketatuak.

Ikusi dokumentala:



IRANTZU ZUBIAUR OLAZAR AZTI-KO KOMUNIKAZIO ARDURADUNA

“Gure mezua litzateke: euskara ez da oztopo, baizik eta balio erantsia. Saiatu, errealismoz, baina konpromisoz”

AZTI zentro teknologikoak 2025eko Bai Euskarari Saria du, euskararen presentzia eta erabilera sustatzeko egindako lanaren aitortza gisa. Elkarrizketa honetan Irantzu Zubiaur Olazarrek azaldu du zer esanahi duen errekonozimenduak haientzat, nola uztartzen duten nazioarteko ikerketa euskararen aldeko apustuarekin, eta zeintzuk diren etorkizuneko erronkak zientziaren esparru globalizatuan hizkuntzak bere lekua izan dezan.

Lehenik eta behin, zorionak Bai Euskarari Sariagatik. Zer suposatzen du AZTIrentzat eta zuentzat pertsonalki errekonozimendu hau jasotzeak?

Eskerrik asko. AZTIrentzat eta, bereziki, urte hauetan guztietan euskararen presentzia bermatzeko eta erabilera sustatzeko lan egin duten pertsonentzat, sari hau jasotzea oso pozgarria da. Urteetan egindako lan isilari balioa ematen dio, eta euskararen aldeko konpromisoari eusteko motibazioa ematen digu.

Egia da gure eguneroko jardunean erronka asko ditugula hizkuntza aldetik, baina gutxika egindako ahalegin txikiek ere bidea egiten dutenaren adierazgarri da. AZTIIn albistea poz handiz jaso dugu. Saria helmuga baino, bultzada gisa ikusten dugu, euskarak gure eguneroko jardunean leku duina izaten jarrai dezan.

Sari honek ibilbide baten aitortza dakar. Zeintzuk izan dira AZTIIn euskararen presentzia eta erabilera areagotzeko eman dituzuen urrats esanguratsuenak azken urteotan?

Azken urteetan hainbat norabidetan egin dugu aurrera. Batetik, urte luzez langile talde batek —tartean Itza tal-

deko kideak— euskararen alde egindako lan nekaezina azpimarratu nahi dugu. Haien konpromisoari eta irmotasunari esker, euskarak bere tokia mantendu du erakundean, bizirik eta presente.

Bestetik, Zuzendaritzak euskarari emandako babesa aipagarria da. Duela urte batzuk, euskara “onura sozial” gisa aitortu zen AZTIIn, eta horrek bultzada eman zion hizkuntza ikasteari, pizgarri eta baliabide berriekin.

Era berean, barne-komunikazioan eta kultura korporatiboan ere izan dira urrats esanguratsuak: *Kuxkuxean* aldizkariak, adibidez, euskarazko eduki hurbil eta atseginak eskaintzen ditu, eguneroko bizitzatik abiatuta.

Azken urtean, berriz, Euskara Plana berraktibatzen eta erabilera arautzeko prozedura bat diseinatzeko hasi gara. Helburua da euskara beste edozein baliabide estrategikoren parean kokatzea.

Askotan entzuten da AZTIren izena, baina agian herritar askok ez dute erabat ulertzen zuen eguneroko lanaren garrantzia eta irismena. Nola azalduko zenioke modu errazean zer egiten duen AZTIk eta zein den

zuen misio nagusia, Nazio Batuen 2030 Garapen Iraunkorrerako Helburuekin (GIH) bat eginez?

AZTI zentro zientifiko eta teknologiko bat da, gizartearen eta planetaren etorkizunerako eragin handiko proiektuak garatzen dituen. Gure lana itsasoarekin eta elikadurarekin lotuta dago, eta gure helburua da zientziaren eta berrikuntzaren bidez gizarte osasuntsuago, iraunkorrago eta bidezkoago bat eraikitzen laguntzea.

Gure eguneroko lana ez da teoria hutsa: eragin zuzena du itsas ekosistemen kontserbazioan, elikadura osasungarriaren garapenean edo klima-aldaketaren aurkako borrokan. Horregatik, gure jarduera guztia Nazio Batuen 2030 Garapen Iraunkorrerako Helburuekin (GIH) lerrotatzen da, besteak beste:

2. Gosea ezabatzea: Elikadura-sistema jasangarriagoak eta osasuntsuagoak garatzen ditugu.

3. Osasuna eta ongizatea: Nutrizio pertsonalizatuan oinarritutako soluzioak eskaintzen ditugu bizi-kalitatea hobetzeko.

12. Ekoizpen eta kontsumo arduratsua: Baliabideen erabi-



lera eraginkorra eta elikagaien xahuketaren murrizketa sustatzen ditugu.

13. Klima-ekintza: Klima-aldaketaren ondorioak ikertzen ditugu eta egokitzapen- eta murrizketa-neurriak proposatzen ditugu.

14. Itsaspeko bizitza: Itsas baliabi-deak modu jasangarrian kudeatzeko teknologia eta ezagutza eskaintzen ditugu.

AZTI, ikerkuntza ez da helburu bat berez: gizarteari onura ekartzen dion tresna bat da. Enpresekin eta erakundeekin batera lan egiten dugu, erronka handiei aurre egiteko eta benetako aldaketa positiboa eragiteko.

Horrela, AZTI bere ekarpena egiten du: Planetako bizitza jasangarriagoa izaten lagunduz; pertsonen osasuna hobetuz; ekonomia biziberrituz eta kalitateko enplegua sortuz; ezagu-

tza sortuz eta partekatuz, gizartearen onerako.

Itsas ingurunea eta elikadura dira zuen espezializazio-arloak, eta 10 ikerketa-eremu aipatzen dituzue. Gaur egun, zeintzuk dira AZTIren ikerketa-ildo estrategikoenak edo gizartean eta ekonomian inpaktu handiena izaten ari direnak?

AZTIren ikerketa-ildo estrategikoen lotura estua dute trantsizio berdearekin, eraldaketa digitalarekin eta jasangarritasunaren aldeko apustuekin. Zeharkako ikuspegitik, ikerketa guztiak ahalegintzen dira eragin positiboa izaten bai ingurumenaren aldetik, bai gizarte- eta osasun-arloan (*One Health* ikuspegia).

Inpaktu handiena izaten ari diren ikerketa-ildoetako batzuk dira:

Klima-aldaketa eta aldaketa globalari aurre egiteko ikerketa, bai itsas

ingurunean, bai elikadura-sisteman.

Arrantza eta akuikultura efiziente eta jasangarriaren garapena, baliabideen kontserbazioa eta sektorearen lehiakortasuna uztartuz.

Elikadura eta osasuna, non elikagai funtzional berriak garatzen diren, pertsonen ongizatea hobetzeko.

Elikadura-industriaren eraldaketa, efizientzia, jasangarritasuna eta zirkulartasuna helburu.

Bioekonomia eta ekonomia urdina, baliabide naturalen erabilera ardu-

“Urteetan egindako lan isilari balioa ematen dio, eta euskararen aldeko konpromisoari eusteko motibazioa ematen digu”



ratsua eta sektore ekonomiko berrien bultzada uztartzen dituztenak.

Horiez gain, itsas eta kostaldeen kudeaketa eta ozeanografia operazionala ere estrategikoak dira, itsas baliabideei eta lurraldearen antolaketari lotutako erabakiak hartzeko ezinbesteko informazioa ematen dutelako.

Zientzia eta teknologia, askotan, ingelesez edo beste hizkuntza nagusi batzuetan mugitzen den esparru globalizatua da. Nola lortzen duzue euskara txertatzea zuen eguneroko jardunean: barne-komunikazioan, ikerketa-proiektuetan, emaitzen dibulgazioan, harremanetan...?

Egia da zientziaren eta ikerketaren esparruetan ingelesa dela komunikazio-hizkuntza nagusia, eta horrek mugak jartzen dizkio euskararen erabilerari. Hala ere, gure eguneroko jardunean euskara ahalik eta gehien txertatzen saiatzen gara, betiere testuingurua eta hartzailak kontuan hartuta.

Barne-komunikazioan, esaterako, euskarari lehentasuna ematen diogu ahal den neurrian: mezu instituzionalak ele bitan bidaltzen ditugu, eta langile euskaldunen arteko harremanetan euskara sustatzen da. Kanpo-harremanetan eta dibulgazioan, berriz, publikoaren profila kontuan

hartzen dugu: Euskadiko ekitaldietan edo euskal erakundeekin lan egiten dugunean, euskararen presentzia bermatzen dugu, eta, ahal bada, edukia euskaraz ere eskaintzen saiatzen gara.

Ez gara perfektuak, baina urrats txikiak ematen ari gara euskararen presentzia bermatzeko gure jardunean, betiere errealismoz eta zientziaren izaera globalaren jakitun.

Zalantzarik gabe, erronkak ere egongo dira.

Zientzia eta teknologia mundu globalizatuan kokatzen dira, eta hizkuntza nagusia, zalantzarik gabe, ingelesa da. Horrek zailtasunak ekartzen dizkio euskararen erabilerari, bai ikerketa-proiektuetan, bai emaitzen zabalkundean. Testuak, artikulak eta txosten teknikoak ingelesez idazten dira gehienetan, eta horrek mugatu egiten du euskarazko baliabide teknikoen sorrera eta erabilera.

Horrez gain, terminologia espezializatuan ere hutsune handiak daude euskaraz, eta horrek zaildu egiten du hizkuntza modu naturalean erabiltzea lan tekniko eta zientifikoan. Bestetik, lankidetzaren sare gehienak nazioartekoak dira, eta horrek ere ingelesa lehenesten du.

Hala ere, badaude sektore batzuk —adibidez, arrantza edo itsasoa— historikoki lokalagoak izan direnak eta euskararekin lotura estuagoa izan dutenak. Baina baita horietan ere, globalizazioak eta nazioarteko araudiek gero eta presentzia handiagoa dute, eta horrek ere baldintzatzen du hizkuntzaren erabilera.

Helburua da euskararen erabilera egituraz normalizatzea. Horrela, “Euskararen Hizkuntza Politika eta Irizpideak” dokumentua izango da gure tresna nagusia: euskara lan-hizkuntza bihurtzeko oinarriak jaso nahi ditugu, bai barneko bai kanpoko harremanetan. Orain arteko barne-politikak (ikastaroak, pizgarriak, euskalduntze-laguntzak) osatu eta egonkortuko ditugu prozedura egituratu baten bidez.

Zuen esperientziatik abiatuta, zer mezu helaraziko zenieke zuen antzeko beste zentro teknologiko, enpresa edo erakunde, euskararen erabilera eta presentzia areagotzea animatzeko, batez ere GIH bezalako helburu globalak lantzen dituztenean?

Ez da beharrezkoa dena perfektua izatea. Garrantzitsuena da lehen urratsak ematea eta ikusaraztea zientzia ere euskaraz gerta daitekeela. Tokiko hizkuntza erabiliz, helburu globalak modu koherenteago eta errotuagoan landu daitezke.

Gure mezua litzateke: euskara ez da oztopo, baizik eta balio erantsia. Eta horretarako, bakoitzak bere erritmoan eta ahal duen neurrian bere ekarpena egin dezake. Saiatu, errealismoz, baina konpromisoz.

“AZTI, ikerkuntza ez da helburu bat berez: gizarteari onura ekartzen dion tresna bat da”

MAIDER SEDANO**GRUPO GISMAKO PERTSONEN ETA ANTOLAKUNTZA AHOAKULARIA**

“Euskara gure nortasunaren eta lehiakortasunaren gakoa da”

Grupo Gisma aholkularitza-enpresak 2025eko Bai Euskarari Saria jaso du, euskararen normalizazioaren alde egindako lanagatik. Aitorpen horren harira, elkarrizketa honetan, enpresak hizkuntzarekin duen konpromisoaren inguruan hitz egin du Maider Sedano Pertsonen eta Antolakuntza aholkulariak, euskara eguneroko zereginetan eta bezeroekiko harremanetan nola txertatzen duten azalduz. Era berean, enpresak jasagarritasuna, zibersegurtasuna, talentuaren kudeaketa eta berdintasuna bezalako funtsezko arloetan duen ikuspegi estrategikoa partekatu du, euskara hori guztia kohesionatzen duen balio erantsi gisa aurkeztuz.

Zorionak Bai Euskarari Sariagatik. Zer esanahi du Grupo Gismarentzat euskararen alde egindako lana aitortzen duen sari hau jasotzeak?

Guretzat oso berezia da sari hau jasotzea, gure ibilbidea eta jatorria aitortzen dituelako. Grupo Gisma Urretxun jaio zen orain dela 28 urte, bertako bezeroekin lanean hasi ginen, gero Goierriera zabaldu ginen, eta, egun, Donostian ere bagaude, Euskadi guztira hedatuz. Euskara beti egon da gure baitan, gure lan-hizkuntza eta bezeroekiko harremanaren oinarria izanik. Kontziente gara non bizi garen eta non lan egiten dugun, eta gure eguneroko jardunean, hitz solteetan bada ere, euskara beti presente dago. Gure misioaren parte da enpresei iraunkorrakoak izaten laguntzea, eta gure ustez, horrek ezinbestean bat egiten du euskararen erabilera sustatzarekin. Beraz, sari honek ez du soilik egiten dugun ahalegina aitortzen; gure identitatea eta konpromisoa ere agerian jartzen ditu.

Nola txertatu duzue euskara egunerokoan eta eskaintzen dituzuen zerbitzuetan?



Gure lantaldeko gehienak euskaldunak gara, eta hori baliatuta, gure eguneroko harremanetan euskara lehenesteko konpromisoa hartu dugu, batez ere gure barneko zein kanpoko komunikazioan. Urrats garrantzitsuak eman ditugu euskara sistematikoki integratzeko:

Barne-konpromisoa: Komite Sozialaren laguntzaz, taldeko kide euskaldunen artean euskaraz komunikatzeko konpromisoa hartu dugu.

Bezeroekin euskaraz: bezero eus-

kaldunekin komunikazioa euskaraz egiten saiatzen gara, bai aholkularitzan, bai prestakuntzan edo dokumentazioan.

“Euskara ez da komunikazio-tresna bat bakarrik; gure nortasunaren parte da, eta hurbiltasuna sortzeko gakoa”

Zerbitzuen eskaintza euskaraz: gaur egun, Gismak eskaintzen dituen zerbitzu guztiak euskaraz emateko gai gara, besteak beste: prozesuen kudeaketa, estrategia eta berrikuntza, pertsonen kudeaketa, iraunkortasuna, zibersegurtasuna eta berdintasuna.

Egia da ez dela erraza den-dena euskaraz egitea, dokumentazio tekniko ugari gaztelaniaz edo ingelesez baitago eta bezero guztiek ez dutelako euskara teknikoki eta lan-arloan menperatzen. Baina gure taldean badira euskaraz bizi diren pertsonak eta euskara baloratzen dutenak ere, eta horrek guztiz aberasten du gure hizkuntza-kultura.

Nola erantzuten dute bezeroek zuzen zerbitzuak euskaraz jasotzeko aukeraren aurrean? Sumatzen dute balio erantsi gisa?

Zalantzarik gabe, bai. Bezero euskaldunek, eta batez ere administrazioarekin lan egiten dutenek, asko baloratzen dute Gismaren aholkularitza edo prestakuntza euskaraz jasotzeko aukera. Azken urteotan nabari dugu euskararen erabilerak gora egin duela enpresetan, ez bakarrik ahozko harremanetan, baita formakuntzan, txostenetan eta komunikazio idatzietan ere. Aniztasunaren kudeaketa eta berdintasunaren sustapena bezala, euskara ere elementu kohesionatzailea eta balio erantsia da enpresentzat.

Zuen leloa da enpresei efizientea goak, jasangarriagoak eta errenta-

garriagoak izaten laguntzea. Nola laguntzen diozue enpresa bati?

Gure jarduna Euskal Herrian erraztuta dago, eta bereziki Gipuzkoan. 28 urte baino gehiago daramatzagu enpresei eta erakundeei efizientzia, jasangarritasuna eta errentagarritasuna hobetzen laguntzen, konponbide pertsonalizatuak eskainiz arlo hauetan:

- Prozesuen hobekuntza (ISO arauak, kudeaketa-sistemak...).
- Estrategia eta berrikuntza proiektuak.
- Pertsonen kudeaketa, eta horren barne, berdintasun- eta euskaraplanak eta haien garapena.

Sinetsita gaude euskara plan batek talde baten kohesioa, erakargarritasuna eta lehiakortasuna areagotu ditzakeela. Horregatik, uste dugu euskarazko ziurtagiriak eta erabilera estrategikoak enpresak hazkunde-bidean jartzen dituztela.

Nola laguntzen diezue enpresei 'Greenwashing'-etik haragoko estrategia eraginkor bat garatzen?

Gismaren lan-metodologia parte-hartzailea da: benetako estrategia eraginkor bat eraikitzeko, ezinbestekoa da enpresaren errealitatean oinarritzea. Horregatik, gure prozesuetan profil desberdinak inplikatzeko ditugu: bulegoko langileak, produkzioak, komertzialak eta zuzendaritza bera ere. Ikuspegi ezberdinak uztartuz, jasangarritasuna hiru ardatz nagusitan (ingurumena, gizarte eta ekonomia)



txertatzen dugu, langileen begiradatik abiatuta. Horrela, *Greenwashing*-etik harago, eragin positiboa duten ekintza neurgarriak identifikatu eta abian jartzen ditugu, enpresaren irudia eta errentagarritasuna indartuz.

Zibersegurtasunaren arloan, zeintzuk dira enpresek egiten dituzten akatsak eta nola laguntzen diezue?

“Berdintasunaren eta aniztasunaren kudeaketa ez da soilik legezko betebeharrak; estrategikoki adimentsua den erabaki bat da.”

#BaiPraktikaEgokia

**Euskaraz lan egiteko
20 jarraibide**



bai
euskarari
elkartea LAN ETA BIZI
EUSKARAZ
baleuskarariLeus



Akatsik ohikoenak “niri ez zait gertatuko” pentsatzea eta ezjakintasunean bizitzea dira, gaiaren konplexutasunari beldurra izateagatik. Guk honela laguntzen diegu:

Lehenik, eredugarri izanez, guk geuk ere egiten dugula erakutsiz. Bigarrenik, datuak mahai gainean jarri, zibererasoak gero eta ohikoagoak direla azalduz. Hirugarrenik, sentsibilizazio praktikoa eginez, langile guztientzako jarduera errazekin. Azkenik, lidergotik hasita eta nazioarteko estandarrak (ISO 27001) ezarri.

Zibersegurtasuna ez da soilik IT sailaren kontua: enpresa osoaren kultura-kontua da.

Nola aholkatzen dituzue enpresak

talentua erakartzeko eta mantentzeko?

Gure esperientzian oinarrituta, hiru estrategia nagusi gomendatzen ditugu:

Enpresaren helburuak eta balioak argi komunikatzea, jendeak bere lanari zentzua aurki diezaion.

Lan-esperientzia osoa zaintzea, hautaketa-prozesutik hasi eta eguneroko kudeaketaraino, komunikazio gardena, aintzatespena eta garapen profesionala eskainiz.

Kultura inklusibo eta berdintasunean oinarritua eraikitzea, aniztasuna baloratuz eta pertsona guztien konpromisoa bermatuz.

Hau da, pertsonak zaintzen dituzten enpresek talentua erakartzen eta mantentzen dute. Eta hori ez da marketinoko esaldi bat, emaitzetan eraginda duen estrategia baizik.

Berdintasunaren eta aniztasunaren kudeaketa betebeharrak bat edo aukera bat da?

Gismaren ustez, aukera estrategiko argi bat da. Legeak ez ditugu arazo gisa ikusten, aldaketa positiboak egiteko behar genuen bultzada gisa baizik. Berdintasun Planek talentua erakartzeko eta fidelizatzeko balio dute, eta aniztasuna modu positiboan kudeatzen duten enpresek talde aberatsagoak eta berritzaileagoak lortzen dituzte, eta bezeroekin hobeto konektatzen dute. Azken batean, lan-giro osasuntsuagoak lehiakortasuna indartzen du.

Nola ikusten du Gismak bere rola Euskal Herriko enpresa-sarea kohezionatzeko?

Geure burua aliatu gisa ikusten dugu eraldaketa-prozesuetan. Euskara ez da komunikazio-tresna bat bakarrik; gure nortasunaren parte da eta hurbiltasuna sortzeko gakoa. Euskararen bidez, enpresek harreman sendoagoak eta konfiantzan oinarritutakoak eraikitzen dituzte. Gure lanarekin erakusten dugu euskaraz lan egitea guztiz bateragarria dela kalitatearekin eta profesionaltasunarekin, eta horrek enpresa-sarearen kohesioa eta lehiakortasuna bultzatzen dituela.

Zer mezu bidaliko zenieke beste zerbitzu-enpresei euskara gehiago integratzera animatzeko?

Guk animatu egingo genituzke, eta pauso txikiekin hasteko esango genieke. Euskara txertatzen hasten den enpresak berehala sumatzen du aldaketa: komunikazioa hurbilagoa da, bezeroekin harremana sendoagoa eta lantaldean kohesioa handiagoa. Euskara ez da soilik nortasunaren parte; balio erantsia eta aukera estrategikoa ere bada. Askotan, barneko jendea da bultzadarik handiena ematen duena; beraz, haiei entzutea eta konfiantza ematea da lehen urratsa. Eta gogoratu: ez da zertan perfektua izan; garrantzitsuena pausoa ematea ausartzea da.

**GURE KULTURAREN
KOLORE GUZTIAK**

LEITZARAN
grafikak

Gudarien Hiribidea 29
20140 Andoain (Gipuzkoa)
Tf: 943 30 35 10
www.leitzaran.eus
grafikak@leitzaran.eus

ELORRI BEHETY

EGARRI EDARIAK-EKO KOMUNIKAZIO ARDURADUNA

“Funtsezko konpromisoa da euskaraz lan egitea, eta gure nortasunaren oinarria ere bada”

Egarri Edariak enpresak 2025eko Bai Euskarari Saria jaso du, euskararen presentzia eta erabilera sustatzeko egindako lanaren aitortza gisa. Elkarrietzeta honetan, Elorri Behetyk azaldu du, besteak beste, hastapenetatik euskara erdigunean kokatu dutela eta langileei euskara ikasteko erraztasunak ematen dizkietela. Are gehiago, sortu zenetik, enpresak apustu sutsua egin du euskal ekoizleak lehenestearen eta haiekin zein bezeroekin harremanak euskaraz izan daitezen erraztearen alde. Erreferentziazko enpresa da bere negozio-sektorean eta euskararen erabileran Ipar Euskal Herrian, eta gero eta harreman handiagoa du Hegoaldeko ekoizleekin eta gizartearekin ere.

Zorionak! Bai Euskarari Saria jaso duzue. Zer da zuentzat sari hau jasotzea?

Sari hau sekulako aitortpena da guretzat. 2015ean enpresa sortu genuenetik, euskara proiektuaren erdigunean kokatu dugu. Euskara lanerako gaitasuntzat dugu. Horrez gain, langileei euskara ikasteko ikastaroak eskaintzen dizkiegu. Komunikazio osoa bi hizkuntzatan egiten dugu, bai kontsumitzaileekin, bai bezeroekin, bai langileekin. Funtsezko konpromisoa da, bereziki Ipar Euskal

Herrian, baina baita gure nortasunaren oinarria ere. Hastapenetik ahaleginak egiten ditugu, egunero, euskara bizi arazi eta zabaltzeko.

Zer leku du euskarak zuen negozioaren egunerokoan?

Euskarak enpresako maila guztietan du protagonismoa, bereziki komunikazio-taldean, zeinak egunero erabiltzen baitu, hala sare sozialetan —non mezu guztiak bi hizkuntzatan diren—, nola barne-komunikazioan. Ahal dugun heinean, euskal ekoizleak

lehenesten ditugu, gure langileek haiekin euskaraz hitz egiteko aukera izateaz gain, ekoizpen-prozesuari zentzua emateko. Adibidez, hamar urte daramatzagu Astigarragako Agustin Etxeberriarekin, gure sagar-

“Tradizioari eta berritzaile izateari garrantzia emateak hastapenetik bereizten gaitu”



Koop
mitxelena
TAMAINA HANDIKO PIEZEN MEKANIZATUA

Ezlago Industrialdea 21, HERNANI 943 55 25 12 - 16
info@talleresmitxelena.eus www.talleresmitxelena.eus



do-hornitzaile nagusiarekin, eta harremana euskara hutsean dugu. Abarratia euskal garagardo autonomia ere horren adierazle dugu: bertako maltza, lupuluaz eta uraz ekoizten dugu, baita egunero akuilatzen gaituen euskararen aldeko konpromisoari esker ere.

Nolako bilakaera izan du euskarak zuen negozioan hasi zinetenetik? Eta zer nolako ahalegina eskatzen du?

Enpresa nabarmen hazi da azken hamarkadan. Guretzat, eguneroko erronka da euskararen erabilerari eustea. Enpresaren eta langile kopuruaren hazkundeak ez du euskararen presentzia kaltetu behar. Batez ere Ipar Euskal Herrian, oso garrantzitsutzat dugu hori, eta ahalegin horretan datza gure eguneroko konpromisoa.

Eta nola baloratzen dute zuen bezeroek enpresa euskalduna izatea?

Bulegora etortzen direnean, bezero erdaldunak maiz harritzen dira langileak euskaraz entzutean. Haatik, laster ulertzen dute hizkuntza gure nor-

tasunaren oinarria dela. Eta, jakina, euskaldunentzat abantaila handia da.

Norberaren hizkuntzan artatua izateak gertutasuna, bestelako konfiantza... eskaintzen al du?

Osoki. Bezero euskaldunei begira, konfiantzazko harremana sortzen du. Abantaila erabakigarria da!

Euskara zuen balioetan txertatuta daukazue. Zer esan nahi du horrek?

Guretzat, balio nagusia da. Ahal dugun guztietan, euskarazko ekimenak sustatzen ditugu, eta euskal kulturaren alde lan egiten duten elkarteak laguntzen ditugu. Enpresako langile guztiek dute euskara-eskolak hartzeko aukera. Duela lau urte hasi ginen Xabi Castorekin (Ikusi eta Ikasi) lanean. Aurten, lehen aldiz, zenbait langile B1 eta C1 mailako azterketara aurkeztuko dira. Gainera, hilero prestakuntza-saio labur bat antolatzen dugu euskal kulturaren inguruan, hala nola ihauteriei edo txalapartari buruz. Euskara biziarazteko ekintzetan parte hartzen dugu entitate gisa. Izan ere, Korrikan kilometroa erosten dugu aldiro, eta, Euskaraldiaren hari-

ra, hainbat ekitaldi antolatzen ditugu enpresa barruan nahiz kanpoan.

Noiz eta nola sortu zen Egarrri Edariak? Zeri erantzuteko?

Egarrri Edariak 2015ean sortu zen, Kupela sagardo markarekin batera. Ondoren, enpresak hainbat edari motatako markak sortu zituen: Euskola Kola, Pressoir du Pays Basque zukuak, Balea eta Abarratia garagar-doak, ETS Lapurdi edari destilatuak... Gure helburua da artisau-edariak eskaintzea gure bezeroei, besteak beste, saltoki handi eta ertainei, janari-dendei eta jatetxeei.

Bilakaera itzela izan du enpresak. Kontaiguzu...

Enpresa anitz garatu dugu azken 10 urteetan, marka berriak sortu eta erosiz, produktu-sorta zabala eskaintzeko xedez. Urtero, langile berriak kontratatzen ditugu. Iaz, adibidez, Jon batu zitzaigun Euskola marka Hegoaldean garatzeko, hau da, euskaldun guztien kola egiteko. Fabrika bat ere eraiki dugu, eta saltzen ditugun produktu gehien-gehienak guk geuk ekoizten ditugu.

Zenbat pertsonak osatzen duzue enpresa?

Egarrri Edariak enpresak 15 langile ditu, baina enpresa-sare baten zati bat baino ez da. Eragin Fabrikak 10 langile ditu, eta, duela urtebete pasatxo, Kupela Sagardotegia ireki genuen Baionan, sagardoa Ipar Euskal Herrian biziberritzeko asmoz. Sarea osatzen duten enpresa guztiek Bai Euskarari Ziurtagiria dute. Enpre-

“Bezero euskaldunei begira, euskaraz artatua izateak konfiantzazko harremana sortzen du. Abantaila erabakigarria da!”

sa bakoitzean euskara sustatu nahi dugu.

Tradizioari eta berritzaile izateari, biei, ematen diezue garrantzia. Zergatik? Nola uztartzen dituzue biak?

Bai, hori da enpresaren eginkizuna hastapenetik. Kupela markaren bidez, tradizioa eta modernitatea uztartu nahi ditugu. Horrek bereizten gaitu hasieratik: tradizioan oinarritu arren, ikuspuntu modernoak garatzen dugulako. Hori da, hain zuzen ere, sortu genuen lehen markaren, Kupelaren, lema. Enpresa barruan ere, lantalde gazte, eraginkor eta dinamikoa osatu nahi dugu, Euskal Herriko kultura ezagutarazten ahalegintzen garen bitartean.

Hasieran kanpoan saltzeko ahaleginetan hasi zineten, eta gero, poliki-poliki, bertako produktuak duinduz, Euskal Herrian bertan osatu zenuen sarea? Azaldu prozesua.

Badugu beste enpresa bat, Egarri Trade, elikagaien salerosketan espezializatua. Horri esker bete dezakegu gure anbizioa: edariak Euskal Herrian barna ekoiztea. Arrazoibide hori dugu eguneroko pizgarri: herrian lan egin eta bizi, bertako osagai, hornitzaile eta talentuei esker.

Hainbat produktu edo marka izar dituzue: Kupela, Balea, Euskola, Arima, Abarratia, Amalur, Pressoir du Pays Basque... Kontaiguzu bakoitzari buruzko hiru ideia.

Lehen ideia bezeroen beharrak



asetzea zen, produktu sorta zabal baten bidez.

- Kupela: aurten hamargarren urteurrena ospatzen duen sagardo-eta zuku-marka (Astigarragako ekoizpena).
- Euskola: gaur egun Hego Euskal Herrian ere saltzen dugun kola-marka (Aiherrako ekoizpena).
- Arima: azukrerik gabeko edariak (Aiherrako ekoizpena).
- Abarratia: euskal maltaz eta lupuluz, baita energia berriztagarrien bidez ere, ekoizten dugun garagardo autonomia.
- Amalur ardoak: Nafarroako Jatorri Deiturakoak, erraz edaten direnak eta merkeak. Ama Lurrari gorazarre egiten dioten Nafarroako Ja-

torri Deiturak eta Irulegiko Jatorri Deitura Kontrolatuak Hego Euskal Herriaren eta Ipar Euskal Herriaren arteko lotura gauzatzen dute.

- Pressoir du Pays Basque: azukre erantsirik gabeko zuku naturalak (Aiherrako ekoizpena).
- ETS Lapurdi: Gina, Runa, Whiskia, Menta eta Patxarana biltzen dituen marka (Amurrioko ekoizpena).
- Loreak: Sangria eta Spritz edarien marka (Aiherrako ekoizpena).

Marka bakoitzak keinu egiten dio euskal kulturari, beste zenbait enpresak sarritan erabiltzen dituzten topikoetara lerratu gabe.

Zenbat kolaboratzaile/hornitzaileekin egiten duzue lan?

Agustin Etxeberria (Astigarragako sagardotegia), Eragin Fabrika (Aiherrara), Etxeko Bob's Beer (garagardogilea, Hazparne), Acha Destileriak (Amurrio) eta Guillermo Castaños (Blai Txakolina).

Zer esango zenioke Bai Euskarari Ziurtagiria eskuratzea pentsatzen ari den negozio, elkarte edo erakunde bati, animatzeko?

Aukera ona da hizkuntza-gaitasunak trebatzeko, jende berria ezagutzeko (Kupela sagardotegian antolatu genuen Lanetik Lekora *afterwork*-ean bezala), langileen arteko harremanak sendotzeko eta, nola ez, enpresan euskarari ematen diogun garrantzia erakusteko.

lansarean



LAN ETA BIZI
EUSKARAZ

**EUSKARAZKO
LAN-ATARIA**
LAN BILA ZABILTZA?
LANA ESKAINTZEN DUZU?

lansarean.eus

f x in



Lekeitio

Lekeitioko **60 entitatek** lortu dute Bai Euskarari Ziurtagiria, Bai Euskarari Elkartea eta Lekeitioko Udalaren arteko hitzarmenari esker.



Urruña

Herriko Etxearekin sinatu dugun hitzarmenari esker, Urruñako 37 entitatek eskuratu dute Bai Euskarari Ziurtagiria, guztira **42 entitate** kokatuz Euskararen Mapan; Ipar Euskal Herrian ziurtagiridun gehien dituen herria da.



ZEIN BESTE PROIEKTUTAN ARI GARA LANEAN?

Arabako Enpresen Foroa

40 bat enpresa eta eragile sozioekonomiko bildu ziren lan munduan euskararen presentzia sustatzeko eta enpresa eta hezkuntza zentroetan **praktikak euskaraz** egiteko erronkak ezagutzeko.



Enpresarean Foroa

Zergatik da garrantzitsua enpresetan **barne-komunikazioa** ondo lantzea? Eta euskarak zein leku du enpresen komunikazioan? Galdera horiek guztiak eta beste batzuk erantzun zituzten Enpresarean Foroan.



Gasteizko Euskararen Mapa

Gasteizko Udalak eta Bai Euskarari Elkartek duten hitzarmenari esker, Gasteizko enpresok bi urteko **doako zerbitzua** jasoko duzue Bai Euskarari Ziurtagiria eskuratzeagatik.



Bai Euskarari Elkarateak ‘Elkarrengandik Ikasiz’ solasaldiak podcast formatuan

Ekintzailtza, etorkizuneko mugikortasuna eta lan-munduen etorkizuna jorratuko dituzte uztailean argitaratuko diren hiru saioetan, lehen aldiz bideoz eta audioz.



Bai Euskarari Elkarateak, Kutxa Fundazioaren laguntzarekin, *Elkarrengandik Ikasiz* solasaldi-zikloaren bosgarren edizioa aurkeztu du. Egungo gizartearentzat interes handikoak diren gaiak jorratzeko helburuarekin, aurtengo edizioak beritasun nabarmen bat dakar: ohiko bideoez gain, solasaldi guztiak podcast formatuan ere eskuragarri egongo dira lehen aldiz. Uztailetik aurrera, hiru saioak hainbat plataformatan argitaratuko dira, formatu berrietara egokituz eta eztabaida publikoa are gehiago zabalduz.

Aurtengo zikloak hiru gai nagusi izango ditu ardatz, bakoitza bere alorreko adituekin landuta: ekintzailtza, mugikortasun jasagarria eta etorkizuneko lan-merkatua.

“Ideiatik ekintzara: ekintzailtza”

Lehen solasaldiak ekintzailtzaren mundua arakatuko du, negozio bat sortzetik haratago doan ikuspegi zabal batekin, sormena, lidergoa eta berrikuntza bezalako gaitasunak azpimarratuz. Donostia, %6,6ko tasarekin, ekintzailtza-proiektu gehien martxan jartzen dituen hiria dela jakinik, saioak gaiari lotutako galdera ugariri erantzungo die.

Parte-hartzaileak honako hauek izango dira:

- **Libe Bastida Larrea**, ASLEko (Euskadiko Lan Sozietateen Elkartea) teknikaria.
- **Miren Lauzirika**, *Art for Life!* sormen-aholkularitzaren sortzailea eta EmakumeEkin elkarteko kide sortzailea.
- **Iñaki Peña**, Deustuko Unibertsitateko katedraduna eta Berrikuntza eta Ekintzailtza Ikerketa-taldeko zuzendaria.

Solasaldian, negozio bat martxan jartzeko urratsak, enpresa berrientzako laguntzak, saretzearen garrantzia eta porrotari beldurra nola kudeatu bezalako gaiak jorratuko dituzte.

“Etorkizuneko mugikortasuna, jasagarritasunerako bidean”

Bigarren atalak mugikortasun jasagarriaren erronketan sakonduko du, Euskal Herriak klima-aldaketaren aurkako borrokan eta garapen ekonomikoan duen zeregina azter-



tuz. Garraio-sektorearen eraldaketa digitala eta jasangarria izango da eztabaidaren muina.

Hizlariak honako hauek izango dira:

- **Igor Villarreal**, MUBILEko (Mugikortasun Berriaren Zentroa) zuzendari nagusia.
- **Mikel Irizar Buenechea**, Irizar e-mobility-ko Komertzial arduraduna.
- **Amaia Ortiz de Elguea**, Uvesco-BM taldeko Iraunkortasun arduraduna.

Besteak beste, mugikortasun berriak enpresak nola eralda ditzakeen, politika publikoek nola lagundu dezaketen eta datozen 10-20 urteetan hiri-garraioak izango dituen aldaketak eztabaidatuko dituzte.

“Etorkizuneko langileak”

Hirugarren eta azken solasaldiak lan-merkatuaren egungo egoerari helduko dio, bereziki Euskal Autonomia Erkidegoan bete gabe geratzen diren 5.000 lanposturen arazoari. Adituek aztertuko dute ea langile-falta egiturazko arazo bilakatzen ari den eta zer neurri har daitezkeen horri aurre egiteko, kualifikazio-beharrak, demografia eta kanpoko talentuaren erakarpena kontuan hartuta.

Mahainguruan eseriko direnak:

- **Ibon Otaegi Perez**, Laboral Kutxako Pertsona zuzendaria Gipuzkoan.
- **Niko Cuenca Beristain**, ekonomialaria eta Enpresabideako eduki-aholkularia.
- **Julia Shershnova**, Ikuspegi - Immigrazioaren Euskal Behatokiko zuzendaria.

Saioan, atzerriko langileak erakartzeko estrategiak, formakuntzak duen garrantzia eta hizkuntza-aniztasunak Euskal Herriko testuinguru eleanitzean dakartzan erronka eta abantailak landuko dira.

Hiru solasaldiak, beraz, uztailean zehar argitaratuko dira Bai Euskarari Elkartearen YouTube kanalean eta podcast plataforma nagusietan, gizartearentzat funtsezkoak diren gaiiei buruzko elkarriketa eta hausnarketa sustatzeko asmoz.

Ikusi solasaldiak:





HAMAIKANPER

LEHIAKETA SAIOA MARTXAN DA!


EZ GALDU LEHEN ATALAK ETA EZAGUTU LEHIAKIDEAK!

Eta zuk zurea erakutsi nahi?
Eskaneatu QRa eta parte hartu!

www.hamaika.eus/saioak/hamaikanper







***Lan munduan euskararen erabilera
areagotzeko eragiten 25 urtez.***

Beste horrenbeste egiteko indarrez!

lansarean

euskaragileak

ziurtagiria

enpresarean

bai euskarari
sariak

lazarraga
sariak

elkarrengandik
ikasiz

... eta gehiago



LAN ETA BIZI
EUSKARAZ

baieuskarari.eus

f x @ in y